

# EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

---

**Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1927'ko Ufi-  
la'ren 27'an.**

Aipatzen diran euskaltzain jaunok bildu ziran: Azkue, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe eta euskaltzain-ordeko Oleaga ta Ormaetxea jaunak. Otoitzez asi da batzaraldia.

I.—Jabon sailari dagozkion arazoak aipaturik, udara ontan egin diran euskeraren aldezko lanez itz egin da. Aita Olabidek esan digu, Jesusen Lagundian euskera ikastea agindutzat ipiñi dala, angoxe *novicio*-arentzat, Ta Azkue jaunak Londresko liburutegian egin dituen lanen agerbide dat irakurri digu; antxen aztertu bai-ditu Mikoleta ta beste batzuen eskuidatziak.

II.—Eusko-Ikaskuntzak iragartzen diguna autuan erabili da. Onek aurtengo udaran, Udaraldiko ikastarotxo bat eragin du ta euskerari dagozkion salean, erabaki batzuek artu dira: Oietan bat auxe: Euskaltzaindiak, Itz-beñien ardura atazaz artu dezala, edo ontzat arturik orainartero babiltzanak, edo batzuen batzuek onetsirik, edo bear diranak beronek sorturik. Lan au ezin egin liteke berialako batez, eskaliak nai duten bezala, baizik asti ta pitinka ibili bear da lan onen elburuan. Gañera. Euskaltzaindiaren lengoxe lana da auxe, ta utsune abek beteko dirala deritzagu, esku-arteko iztegi beñia argitaratzen danean. Ara beste eskaria: euskaltzain Sebero Altubegandik auxe: jañi ditzala idazkitso batean, idazleak geienez egin oi di-

tuzten utsunak ta ongi idazteko arau batzuek. Altube jaunak entzun du ta ezin ukatu duelako bere laguntz-arik, agindu digu arazo onen lana. Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta amaitu da batzañaldi auxe.

---

### **Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1927'ko Urri-la'ren 28'an.**

Aurēko batzañaldian aipatzen diran jaun berak datoz, Azuke maipuru dala.

I.—Len aitafatu diran lanak aurera eraman nairik, Azkue jaunak, alako araubide batzuek irakuñi dizkigu, batez ere itz-beñien sortze edo arbuari dagozkienak. Garbi eta argi egindako arautxo abek euskaltzain bakoitzari bialiko zaizkio, garai eta adi onez zerbait egin edo erabaki dedin. Azkue jaunak beñegei urte abetan oraiñarteño sortutako itz-beñien xerenda bereganatuta dauka. *Fonetismo* berezi baten batasuna eragin bear da ta era batez idazkera ta morfologiari dagokiena.

II.—Aita Intzak irakuñi dizkigu, Aita Justo Moko-roak Lardizabalen Testamentu zar eta beñiko kondairan idoro dituen itz-beñi, esakuntz, joskera ta esakerak. Lan auxe ezta nolana egiña: onetsi du Euskaltzaindiak eta beronen *Euskera'n* argitaratuko da.

III.—Eguskitza jaunak Mogel eta beste idazle batzuefatik ateratako itzak ekañi dizkigu. Azkue jaunaren iztegian badaude bañan beste adigai batez. Oregatik argitaratuko dan iztegian ezañiko dira.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzañaldi auxe.

---